SARRERA (JOLASA)

Zuzendaritza-trebetasunak, edozein kudeaketa- eta lidergo-jarduera egiteko beharrezkoak diren ezagutza eta gaitasun guztiak dira. Askorentzat, trebetasun horiek edukitzea garrazitsua da haien hazkunde profesionalerako, pertsonalerako eta lantalde baten barruan. Gu geu, zehazki, Gatazka eta Negoziazioan oinarrituko gara, baina, hasteko, gainontzekoak zeintzuk eta zer diren azalduko ditugu:

- Lidergoa: pertsonak batek bere helburuak lortzeko, beste pertsona edo pertsona talde bat motibatzeko, antolatzeko eta ekintzak egitera bultzatzeko duen gaitasuna da. **(1B)**
- Motibazioa: helburu bat lortzeko edota premia bat asetzeko bideratutako jokabideak hasi, gidatu eta mantentzen dituen prozesuari deritzogu. Jarduten laguntzen digun indarra da, egoera zailetan aurrera jarraitzen laguntzen diguna. **(2E)**
- Komunikazioa: gai jakin bati buruzko datuak, informazioa eta iritziak trukatzen diren prozesuari deitzen zaio. **(3A)**
- Lan-taldeen zuzendaritza: erakundeetan garrantzi handia duen zeregina da, zuzendaritza honen mende baitago enpresak ezarritako produktibitatea eta helburuak lortzea da. **(4D)**
- Gatazka: interes ezberdineko bi pertsona edo gehiago konfrontazioan, oposizioan edo elkarren kontrako ekintzak egiten dituzten egoera. **(5C)**
- Negoziazioa: bi alderdiren edo gehiagoren arteko hitzezko edo hitzik gabeko komunikazio-prozesu dinamikoa da, helburu nagusitzat interesak asetzea duena. **(6F)**

GATAZKA (MOTAK)

- GATAZKA INTRAPERTSONALAK: gatazka guztiek ez dute pertsona bat baino gehiago inplikatu behar, ahal dira barne gatazkak eduki. Oso ohikoa da hau gertazea, erabaki zail bat hartu behar dugunean edo disonantzia kognitiboa dugunean, hau da, geure akzioak ez dijoazenean bat geure ideiekin.
- GATAZKA KOLEKTIBOAK: mota honen barnean, beste banaketa bat egin dezakegu, taldeen artekoa edo talde barnekoak.
- ERLAZIO GATAZKAK: edozein erlazio sozialetan sortu daitezkeen arazoak dira.
- INTERES GATAZKAK: lantaldeko kideren batek bere onura bilatzen jardueraren batean parte hartzen duenean, taldeak bilatzen duena alde batera utziz.
- GATAZKA ETIKOAK: pertsona bat edo gehiagoren arrazoi etikoen arteko desberdintasunean dute oinarri. Orduan, gatazka etikoak aldi berean, gatazka intrapersonalak edo gatazka kolektiboak izan daitezke.
- BOTERE GATAZKA: botere desberdintasun batetik hasitako gatazkak dira, non pertsona batek, beste baten gain presioa egiten du, jakinik pertsona hori desebantailan dagoela.

ESKU HARTZE PROPOSAMENA (AZALPENA)

Egoera honetan, esan dezakegu, gatazka erreal baten aurrean gaudela, izan ere, ez da langileak asmatu duen zerbait, errealitate bat da. Gainera, gatazka interpersonal bat dela esan dezakegu, ez baita pertsona batek bere buruarekin duen gatazka soil bat, beste pertsona batzuekin duena baizik. Azkenik, boteretik eratorritako gatazka bat dela esango genuke, enpresaburuak bere boterea aprobetxatzen duelako langilearen aurrean, soldata berak aukeratzen duelako.

Egoera:negoziazioaren garapena etorri da, bi alderdien topaketa gertatu da eta bertan, ikuspuntuak trukatu dira eta langileak soldata igoeraren eskaintza egin du.

ONDORIOAK

Azkenik, konturatu gara, gatazka eta negoziaketa bat aurrera eramatea askotan pertsonok zailagoa egiten dugula gure jokatzeko moduagatik eta gauzak lasai eta pentsatzen egiten badira arazoak askotan ez direla hain larriak.